

## OMENEZ

# DIMA'KO EUSKALDUN JATORRA



### DIMA'TIK MAÑARI'RA

Uriarte ta Iza'tar Josu Bizkai'ko erritxu baten jaioa da, Dima'n. Ba-dago erri onetan giza-talde zintzoa, berba gixikoa baiña bear egiten zalea.

Bera gaztaroan erriz aldatu zan eta Dima'tik Bustintza'tar Ebaristo (Kirikiño) ren errira, Mañari'ra etorri zan.

Dima'n ala Mañari'n egiten ete da obeto euskeraz?

Ba-dakigu Mañari'koa dala "Abarrak" liburaren idazlea eta liburu au andra eta gizon erritarrak irakurteko egozia dala, ulertzen asi eta gero geiago sakontzeko.

### JOSU, EUSKALDUNA

Idaz-lan au izenpetzen dauana ez da gauza itaun orreri erantzuteko eta erri batean naiz bestean egiten dan euskerrea aztertzeko, gaiñera esandako erritxuetan bizi be ez da idazle au.

Dana dala azterketa orren ondorena, auxe bai ba-dala egia: Uriarte'tar Josu'k ederto egiten ebala euskeraz, euskereak berez urteten eutsola auzoko lagunakaz eta ezagunakaz alkar-berbetean (Lenaldian darabilt aditza. Ez dot esan oraindiño, baiña gure Josu il egin da eta ez dau bear-ko izkuntzarik orain ango biztanleakaz berba egiteko).

### NOR ZAN

Bere soldaduzka non eta zelan egin eban, ez dakit, zertzelada ori ez eustan emon.

Adin egokian Zornotza-Euba'ko andra bategaz ezkondu eta iru seme-alaba izan ebazan, neska bat eta mutil bi.

Oraintsura arte iparramerikatarren kimika-baltzu baten egiten eban lan, baiña baltzu ori larrione batera eldu zan eta ateak itxi bear langilleai, onein artean gure Josu'ri be bai.

Josu'k sendotasunaz eta adoreaz artu eban ezbear ori, orretarako bere fedea indar-emoille ebala. Ez eban jokabide gorretara jo.

### LANBIDE BARRIA

Josu'k, lanbide ori galdu ebanean, beste era batera lan egiteko bideak aurkitu ebazan, alperkerira eta fristi-frasta ibiltera jausi barik: Etxeko abereen ardurea artu eban, auntzena, zeregin onetan trebea zalako eta jakintsua bere gaztarotik.

Egoera barri onek astia ugari emon eutsan ortuko lanak egiteko eta baserritarren eginbearrai laguntzak mendian naiz soloan emoteko, eta orrelan bizibidea aurrera eroan al izan eban.

### GAISO-ALDIA

Josu'ren biotza, baiña, ez ebillen ondo gizon sendokotea izan eta ikuspen baten osasuntsu-antza emon arren.

Joan dan jorraillaren azkenengo egunetan eguerdiko ordu bat inguruan saldea artzen egoala, subetean bertan jausi zan lurrera biotz-miñak eraginda eta beingoan il zan bere andrearen aurre-aurrean.

Biamonean izan zan illetea. Lauaxeta Ikastolearen ingurua berebillez beterik ikusi neban arrastegi aretan eta zer zan itaundu nebanean Zubiondoan bizi izan dan Josu'ren illetea zala esan eusten.

Illetara urreratu nintzan eta ate-ondoan egoan orrian izenpetu ondoren, barrura satu nintzan, eleizatxura.

Pasiotarrak eleizkizun ederra egin eben: Mezea, berbaldia, abestiak... azkenengo oneik ondo aukeratuak eta biotzari ikara emoteko lakoak. Eleizatxua erritarrez bete-beterik egoan. Ain ona begikoa ta laguntzaillea zan izan be Uriarte ta Iza'tar Josu!

Azkenean Elordi'tar Luis Aitak bertsolarien doiñuz abestu eban kristiñau olerki ederra.

LETONA'K